

## **Ama Lur eta zentsura**

In: Askoren artean: *Haritzaren negua. "Ama Lur" y el País Vasco de los años 60*, Euskadiko Filmategia, Donostia, 1993.

Komunikazioa, hitzen bitartez lortzen da gehienbat, baina bitartekoak asko dira, eta hauen artean eurrez zabaldu dena irudia da. Besteen artean zinema. Zentsuraren biderik ezagunena prentsa idatzia eta liburua bada ere, beste medioetan ere sartzen du hanka. Galdetu bestela 1968an Basterretxea eta Larruquert-ek aurkeztu zuten filme ederra, "Ama Lur", orain demokrazian agintari den Fraga Iribarnek zentsuratik pasa zuen ala ez. Zentsura, egilearen ikuspuntua kamuzteko eta askotan osorik ezabatzeko erabiltzen da. Alegia, eta "Ama lur"i dagokionez, orduan pentsatzeko eskubidea zuen bakarra jenerala zen bere kortearekin, eta hauen artean zegoen zentsuratzailea. Mutil argia! Salduketan yayoa!, indarkerian agintzen zuen militarren nahiak eta nahierak interpretatzen maisua. hau da izan daiteken ogibiderik mixerableena. Garai hartan Gernikako Arbola hosto barik, zinez biluzik jarri zuten egileek Euskal herria zegoen negu gorria erakusteko, eta zentsuratzaileak hau kendu eta maiatzeko zuaitz loratu ederra jarri zieten, beste gauza askoren artean. Garai hartako maina duenik ez da ari gaur lanean. Halere, betirako alde egin zuela uste genuen figura hori gure artean ageri da nahi baino gehiagotan. Esate baterako, jaialdi ederra egiaz adierazi behar lukeen tokian argazki xumea erakusten du telebistan. Edo, nagusiak gustuko ez duen zerbaitetara joan beharrean, kale egin, nahi gabe bezala, eta ohi den orduan ohi den lekuan ohi den kamararik bidali ez dutelako ez da telebistaren ispilua izan behar lukeen albistegian gertakizunaren ezer agertzen; beraz, egia gezur bihurtzen dute, gertatutakoa gertatu ez balitz bezala desagertu da.

Mundu hau erakusten zuten lehen axolagabe, eta erakusten dute orain lotsagabe.

Dena den, orain 25 urte salbatu zen "Ama Lur" ari da zabaltzen Euskadiko Filmategia egun hauetan, eta badu oroimen honek meriturik.

Basterretxea eta Larruquerti, betiko zorionak.